



ASTEASUKO UDALA  
(GIPUZKOA)

## **2023ko UZTAILAREN 11n EGINIKO EZ OHIKO BILKURAREN AKTA**

Asteasuko Udaletxeko Pleno Aretoan, 2023ko uztailaren 11an, arratsaldeko 20.00 etan, Maria Pilar Legarra Cortajarena Alkate anderearen Lehendakaritzapean, behean aipatzen diren Zinegotziak bildu ziren:

ALKATE ANDREA: Maria Pilar Legarra Cortajarena (Asteasu Batuz, AB)

ZINEGOTZIAK: Larraitz ALKORTA AIZPURUA (Asteasu Batuz, AB)  
Pedro Maria IZAGIRRE SARASOLA (Asteasu Batuz, AB)  
Aitor USANDIZAGA IZAGUIRRE (Asteasu Batuz, AB)  
Xabier ROTETA ERKIZIA (Asteasu Batuz, AB)  
Iosu ARRIKARTE OTEGUI (Asteasu Batuz, AB)  
Iosu OMEÑACA ALCORTA (Asteasu Batuz, AB)  
Aitziber EGAÑA CALLEJO (EAJ/PNV)

BITARTEKO IDAZKARIA: Jon Gil Beltza.

Ezin direla etorri aurretik adierazi dute: Amaia AGIRRE ARRASTOA (Asteasu Batuz, AB).

Alkate andreak, goian adierazitako orduan, irekiztat ematen du Udal Osoko Bilkura:

### **GAI ZERREDA:**

- 1. Osoko Bilkurako ohiko saioen aldizkotasuna onestea.**
- 2. Informazio Batzorde Iraunkorrak sortu, eratu eta lehendakaria hautatzea.**
- 3. Tokiko-Gobernu Batzordea sortu eta eratzea.**
- 4. Udalbatzak organo kolegiatuetan izango dituen ordezkariak izendatzea.**
- 5. Alkateordeak, Informazio-Batzordeko lehendakariak eta Tokiko Gobernu Batzarreko kideak izendatzeko ardurari dagozkion alkatetza-dekretuen berri ematea.**
- 6. Alkate andrearen arduraldi erabateko eta horren ordainsariaren araubidea zehaztea.**
- 7. Laguntza eta kalte-ordainei dagozkien ordainketen araubidea onestea.**
- 8. Udalerriko 2024 urteko jai-eguna adieraztea.**

.../...

## **LEHENENGO PUNTUA**

### **Osoko Bilkurako ohiko saioen aldizkotasuna onestea.**

Alkate andrearen proposamena.

2023ko ekainaren 17an eginiko aparteko bilkuran Udalbatza berria osatu zenez, indarrean dagoen legeriaren arabera, beharrezkoa da osoko bilkuren aldizkotasuna ezartzea.

Kontuan izanik apirilaren 2ko 7/1985 Legeak xedatutakoa, Toki Araubide Oinarrien Arautzailea, osoko bilkurak ohikoa eta ezohikoak izan litezke, azken hauek, gainera, premiazkoak izan daitezke.

Horrela, ohikoak lehen aitaturako apirilaren 2ko 7/85 legearen 46.2.a) artikulua (apirilaren 21eko 11/1999 legean idatzita dagoen bezala hain zuzen) ezarritako gutxienezko aldizkatasunez egin beharko dira. Asteasuko Udalarri dagokionez, gutxienez hiru hilabeteko egin beharko dira. Hala eta guztiz ere, Udal honetan bi hilabeteko egin dira Udal Osoko bilkurak, hilabetearen azken asteartean, arratsaldeko 20:00etan; horrekin lotuta, ekaineko bilkurari dagokionez, eta San Pedro jaiak direla eta, hilabete horretan azken aurreko asteartean egiten dira; abuztuari dagokionez, hilabete horretakoa irailaren lehenengo astean egiten dira; abenduari dagokionez, hilabete horretan azken aurreko asteartean egiten dira.

Hori guztiagatik, Toki Erakundeen Antolamendu, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoko Erregelamenduaren 38. artikuluan xedatutakoaren arabera, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuz onarturikoa, apirilaren 2ko 7/85 legearen 46.2. a) artikuluaekin bat datorrena, Toki Araubide Oinarrien Arautzailean xedatutakoaren baitan.

Proposamena bozketara jarri da, ondorengo emaitza eman delarik:

Aldeko botuak: 8 (Legarra, Alkorta, Izagirre, Usandizaga, Roteta, Arrikarte, Olano, Egaña).

Kontrako botuak: 0

Abstentzioak: 0

Beraz, Udalbatzak,

**HAU ERABAKI DU**

BAKARRA. Udalbatzak ohiko osoko bilkurak bi hilabeteko (otsaila, apirila, urria, abendua) azken asteartean, arratsaldeko 20:00etan egingo ditu; ekainekoa, azken aurreko asteartean, abuztukoa, iraileko lehenengo asteartean, eta abendukoa azken aurreko asteartean egingo ditu, ordutegi berdinean.



ASTEASUKO UDALA  
(GIPUZKOA)

## **BIGARREN PUNTUA**

### **Informazio Batzorde Iraunkorrek sortu, eratu eta lehendakaria hautatzea.**

Alkate andrearen proposamena.

2023ko ekainaren 17an eginiko aparteko bilkuran Udalbatza berria osatu zenez, indarrean dagoen legeriaren arabera, Udal honek izaera iraunkorrez izango dituen informazio-batzordeak sortu eta horien osaketa erabaki behar du, hain zuzen Udala aholku izaerako organo osagarri osatzeko, eta 7/1985 Legearen 20.1. c artikulua, apirilaren 2koa, Toki Araubide Oinarriak arautzen dituen, —apirilaren 21eko 11/1999 Legeak berorri ematen dion idazketa berriaren arabera— Udalbatza osatzen duten udal taldeei ematen dien eskubidea gauzatzearren.

Hauek dira proposatutakoak:

1. Hirigintza eta obrak batzordea:

Partaideak: Maria Pilar Legarra Cortajarena (Lehendakaria), Larraitz Alkorta Aizpurua, Pedro Maria Izagirre Sarasola, Aitziber Egaña Callejo

Ordezkoak: Xabier Roteta Erkizia, Aitor Usandizaga Izaguirre, Amaia Agirre Arrastoa, Iosu Omeñaca Alcorta, Iosu Arrikarte Otegui

2. Ogasuna, Kontu bereziak eta administrazioa:

Partaideak: Larraitz Alkorta Aizpurua (Lehendakaria), Maria Pilar Legarra Cortajarena, Aitor Usandizaga Izaguirre, Pedro Maria Izagirre Sarasola, Aitziber Egaña Callejo

Ordezkoak: Xabier Roteta Erkizia, Iosu Omeñaca Alcorta, Amaia Agirre Arrastoa, Iosu Arrikarte Otegui.

3. Gizarte-zerbitzuak, enplegua eta hirugarren mundua batzordea:

Partaideak: Aitziber Egaña Callejo (Lehendakaria), Maria Pilar Legarra Cortajarena, Pedro Maria Izagirre Sarasola, Larraitz Alkorta Aizpurua.

Ordezkoak: Amaia Agirre Arrastoa, Iosu Omeñaca Alcorta

4. Kultura, Euskera, Turismoa eta Hezkuntza

Partaideak: Pedro Maria Izaguirre Sarasola (Lehendakaria), Iosu Arrikarte Otegui, Larraitz Alkorta Aizpurua, Amaia Agirre Arrastoa, Aitziber Egaña Callejo.

Ordezkoak: Iosu Omeñaca Alcorta, Xabier Roteta Erkizia

5. Ingurunearen Kontserbazioa, Sostengarritasun, Baserriak eta Muqikortasuna batzordea

Partaideak: Aitor Usandizaga Izaguirre (Lehendakaria), Pedro Maria Izaguirre Sarasola, Xabier Roteta Erkizia, Maria Pilar Legarra Cortajarena, Aitziber Egaña Callejo

Ordezkoak: Larraitz Alkorta Aizpurua, Iosu Arrikarte Otegui, Iosu Omeñaca Alcorta

6. Komunikazioa, gaztedia eta parte hartzea:

Partaideak: Iosu Arrikarte Otegui (Lehendakaria), Maria Pilar Legarra Cortajarena, Larraitz Alkorta Aizpurua, Aitziber Egaña Callejo

Ordezkoak: Xabier Roteta Erkizia, Amaia Agirre Arrastoa, Iosu Omeñaca Alcorta

7. Berdintasuna eta Bizikidetzat batzordea:

Partaideak: Amaia Agirre Arrastoa (Lehendakaria), Maria Pilar Legarra Cortajarena, Larraitz Alkorta Aizpurua, Aitziber Egaña Callejo

Ordezkoak: Xabier Roteta Erkizia, Pedro Maria Izaguirre Sarasola, Iosu Arrikarte Otegui, Iosu Omeñaca Alcorta

8. Kirola eta ekitaldiak Batzordea

Partaideak: Xabier Roteta Erkizia (Lehendakaria), Pedro Maria Izaguirre Sarasola, Iosu Arrikarte Otegui, Larraitz Alkorta Aizpurua, Aitziber Egaña Callejo

Ordezkoak: Amaia Agirre Arrastoa, Iosu Omeñaca Alcorta

9. Udal obrak eta Zerbitzuak (brigada)

Partaideak: Iosu Omeñaca Alcorta (Lehendakaria), Pedro Maria Izaguirre Sarasola, Aitor Usandizaga Izaguirre, Maria Pilar Legarra Cortajarena, Aitziber Egaña Callejo

Ordezkoak: Xabier Roteta, Larraitz Alkorta, Amaia Agirre, Iosu Arrikarte

Ohizko Informazio-Batzordeek jarraian adierazten den maiztasuna izango dute: hilabetean behin, edo beharraren arabera, lehendakariak egingo dituen deialdietan jasotako toki, egun eta orduetan.



ASTEASUKO UDALA  
(GIPUZKOA)

Bitarteko Idazkariak hala jakinarazita, aipatu Informazio-Batzordeen lehendakaritzak Alkatetza Dekretuaren bidez eskuordetuko dira.

Proposamena bozketara jarri da, ondorengo emaitza eman delarik:

Aldeko botuak: 8 (Legarra, Alkorta, Izagirre, Usandizaga, Roteta, Arrikarte, Olano, Egaña).

Kontrako botuak: 0

Abstentzioak: 0

Beraz, Udalbatzak,

**HAU ERABAKI DU**

**BAKARRA.** Eratzea izaera iraunkorreko proposatutako Informazio-Batzordeak, proposatutako kideak osatutakoak; horiek ohiko bilkurak hilabetero egingo dituzte, Lehendakariak egingo dituen deialdietan jasotako toki, egun eta orduetan.

Aipatu Informazio-Batzordeen lehendakaritzak Alkatetza Dekretuaren bidez eskuordetuko dira

**HIRUGARREN PUNTUA**

**Tokiko-Gobernu Batzordea sortu eta eratzea.**

Alkate andrearen proposamena.

2023ko ekainaren 17an eginiko aparteko bilkuran Udalbatza berria osatu zenez, indarrean dagoen legeriaren arabera, Udal honek izaera iraunkorrez izango dituen Tokiko Gobernu-Batzordea sortu eta horien osaketa erabaki dezake, 7/1985 Legearen 20.1. b artikulua, apirilaren 2koa, Toki Araubide Oinarriak arautzen dituena, —apirilaren 21eko 11/1999 Legeak berorri ematen dion idazketa berriaren arabera— hain zuzen Alkate andreak haren iritzia edo horren laguntza eskatzeko, bere eskumenekoak diren gaietan ebazpenak eman aurretik.

Hauek dira proposatu dituen partaideak: Maria Pilar Legarra Cortajarena (*Lehendakaria*), Larraitz Alkorta Aizpurua, Pedro Maria Izagirre Sarasola *eta* Aitziber Egaña Callejo; dena den, kideen izendapena Alkatetza Dekretu bidez egingo da.

Proposamena bozketara jarri da, ondorengo emaitza eman delarik:

Aldeko botuak: 8 (Legarra, Alkorta, Izagirre, Usandizaga, Roteta, Arrikarte, Olano, Egaña).

Kontrako botuak: 0

Abstentzioak: 0

Beraz, Udalbatzak,

HAU ERABAKI DU

BAKARRA. Eratzea Asteasuko Udaleko Tokiko Gobernu-Batzordea.

### **LAUGARREN PUNTUA**

**Udalbatzak organo kolegiatuetan izango dituen ordezkariak izendatzea.**

Alkate andrearen proposamena.

Udalak udalaz gaindiko erakundeetan izango duen ordezkariak erabaki dezan Udalbatzak.

Hauek dira proposatutakoak:

#### **ESKOLA KONTSEILUA:**

Titularra: Iosu Arrikarte Otegui.

Ordezkoa: Amaia Agirre Arrastoa.

#### **TOLOSALDEKO LANDA GARAPENENKO ELKARTEA:**

Titularra: Aitor Usandizaga Izaguirre.

Ordezkoa: Pedro Maria Izaguirre Sarasola.

#### **TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA:**

Titularra: Aitor Usandizaga Izaguirre.

Ordezkoa: Xabier Roteta Erkizia.

#### **TOLOSAKO HILTEGI MANKOMUNITATEA:**

Titularra: Aitor Usandizaga Izaguirre.

Ordezkoa: Pedro Maria Izaguirre Sarasola.

#### **GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOA:**

Titularra: Maria Pilar Legarra Cortajarena.

Ordezkoa: Larraitz Alkorta Aizpurua

#### **ASTEASU LANTZEN S.A.:**



ASTEASUKO UDALA  
(GIPUZKOA)

Maria Pilar Legarra Cortajarena  
Larraitz Alkorta Aizpurua  
Pedro Maria Izagirre Sarasola  
Xabier Roteta Erkizia  
Aitziber Egaña Callejo

Ordezkorik behar bada: Aitor Usandizaga Izaguirre

EUSKAL FONDOA:

Titularra: Larraitz Alkorta Aizpurua.  
Ordezkoa: Maria Pilar Legarra Cortajarena

EUDEL:

Titularra: Maria Pilar Legarra Cortajarena.

UDALBILTZA:

Titularra: Larraitz Alkorta Aizpurua.  
Ordezkoa: Maria Pilar Legarra Cortajarena

TOLOSAKO EUSKARA MAHAIA:

Titularra: Larraitz Alkorta Aizpurua.  
Ordezkoa: Amaia Agirre Arrastoa

AGROALDEA BATZORDEA:

Aitor Usandizaga Izaguirre  
Pedro Maria Izagirre Sarasola  
Maria Pilar Legarra Cortajarena  
Aitziber Egaña Callejo

TOLOSALDEA GARATZEN, S.A.:

Titularra: Maria Pilar Legarra Cortajarena.

APATTA-ERREKAKO INDUSTRIAGUNEA, S.L.:

Titularra: Maria Pilar Legarra Cortajarena.

UDALERRI EUSKALDUNEN MANKOMUNITATEA (UEMA):

Lehen ordezkaria: Larraiz Alkorta Aizpurua.

Bigarren ordezkaria: Amaia Agirre Arrastoa.

“ASTEASUKO TOKIKO ENERGIA KOMUNITATEA – ASTEASU TEK”:

Titularra: Maria Pilar Legarra Cortajarena.  
Ordezkoa: Aitor Usandizaga Izagirre.

TOKIKO EKINTZA JASANGARRIA ETA TOKIKO 2030 AGENDA EUSKADIN BULTZATZEKO - UDALSAREA 2030 - UDALERRI JASANGARRIEN EUSKAL SAREAREN BERRIZTAPENA:

Titularra: Aitor Usandizaga Izaguirre.  
Ordezkoa: Maria Pilar Legarra Cortajarena.

HAURRESKOLAK PARTZUERGOA:

Titularra: Larraitz Alkorta Aizpurua  
Ordezkoa: Iosu Arrikarte Otegui.

Proposamena bozketara jarri da, ondorengo emaitza eman delarik:

Aldeko botuak: 8 (Legarra, Alkorta, Izagirre, Usandizaga, Roteta, Arrikarte, Olano, Egaña).

Kontrako botuak: 0

Abstentzioak: 0

Beraz, Udalbatzak,

HAU ERABAKI DU

BAKARRA. Udalak udalaz gaindiko erakundeetan izango duen ordezkarietarako proposatutako izendapenak onestea.

**BOSGARREN PUNTUA**

**Alkateordeak, Informazio-Batzordeko lehendakariak eta Tokiko Gobernu Batzarreko kideak izendatzeko ardurari dagozkion alkatetza-dekretuen berri ematea.**

Bitarteko Idazkariak hitza hartu du. Ekainaren 19ko 2023/176 Alkatetza Dekretuaren bidez, hau ebatzi da, besteren artean:

*“LEHENA. Zinegotzi hauek Alkateorde titularrak izendatzea:*





ASTEASUKO UDALA  
(GIPUZKOA)

1. *Alkateordea: Larraitz Alkorta Aizpurua andrea (ASTEASU BATUZ).*

2. *Alkateordea: Pedro Maria Izagirre Sarasola jauna (ASTEASU BATUZ).*

Aipatu izendapenak 2023/06/23ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu dira.

Informazio-Batzordeen lehendakaritza eta Tokiko Gobernu Batzarreko kideen izendapenei dagokionez, horiek Alkatetza Dekretuen bidez ebatziko dira.

Batzordekideak jakinaren gainean geratu dira.

### **SEIGARREN PUNTUA**

**Alkate andrearen arduraldi erabateko eta horren ordainsariaren araubidea zehaztea.**

Alkate andrearen proposamena.

2023ko ekainaren 17an eginiko aparteko bilkuran Udalbatza berria osatu zenez, eta bertan Maria Pilar Legarra Cortajarena Asteasuko Udaleko alkate andrea izendatua izan zenez, eta apirilaren 7ko Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legearen 32 artikuluan jasotakoarekin bat, osoko bilkurak zehaztuko du alkate andreak izango duen arduraldi eskusiboa, eta dagokion ordainsaria; segidan, alta emango zaie Gizarte Segurantzari.

Asteasuko Udaleko 2023 urteari dagokion Aurrekontua Gauzatzeko Arauaren 10.1 artikuluan jasotakoarekin bat, eta Udalbatzak, 2023ko apirilaren 25ean eginiko ohiko bilkuran, hartutako akordioarekin bat, kopuru hauek mantenduko dira: 3.532,60€ hilero, 14 hiletan ordaintzekoa; 49.456,40€ urteko.

Proposamena bozketara jarri da, ondorengo emaitza eman delarik:

Aldeko botuak: 8 (Legarra, Alkorta, Izagirre, Usandizaga, Roteta, Arrikarte, Olano, Egaña).

Kontrako botuak: 0

Abstentzioak: 0

Beraz, Udalbatzak,

**HAU ERABAKI DU**

LEHENA. Onestea alkate andrearen arduraldi eskusiboa; hau izango da horri dagokion ordainsaria: 3.532,60€ hilero, 14 hiletan ordaintzekoa; 49.456,40€ urteko.

BIGARRENA. Onestea alkate andrea gizarte segurantzian alta ematea, onetsitako arduraldi eskusiboa eta dagokion ordainsariari dagokiona.

## **ZAZPIGARREN PUNTUA**

### **Laguntza eta kalte-ordainei dagozkien ordainketen araubidea onestea.**

Alkate andrearen proposamena.

2023ko ekainaren 17an eginiko aparteko bilkuran Udalbatza berria osatu zenez, eta apirilaren 7ko Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legearen 32 artikuluan jasotakoarekin bat, arduraldi eskusiboa edo partziala ez duten toki-erakundeko kideek bakarrik kobratu ahal izango dute bertaratzeengatik. Horrekin, karguari dagozkion kide anitzeko organoetara, bileretara edo jardueretara benetan joatea ordainduko da, eta ordezkari-taldeen erantzukizunarekin lotutako eginkizunak. Osoko bilkurak zehaztuko ditu korporazioko kide bakoitzak urtean gehienez ere zenbat jaso ahal izango duen bertaratzeengatik. Halaber, aipatutako 2/2016 Legearen 34 artikuluan jasotakoarekin bat, Udal-talde politikoek diru-sariak jasotzeko eskubidea izango dute; sari bat finkoa eta berdina izango da talde guztientzat, eta bestea, aldakorra, ordezkari kopuruen arabera, ordezkari horiek esleitu zaizkien eginkizunak duintasunez burutu ahal izateko. Osoko bilkurak finkatuko ditu ordainsari horiek ezartzeko eta esleitzeko irizpideak.

Talde politikoak Udalbatzako lehendakariari zuzendutako idazki baten bidez eratu dira, Udalbatza osatu nahi duten kideek sinatuta. Idazki horretan, taldeko kide izateko borondatea, izena eta bozeramailearen eta, hala badagokio, hura ordeztu dezakeenaren izena adieraziko dira (ETELen 34.5 artikulua). Horrekin lotuta, 2023/07/11an aurkeztutako idatzien bidez Udal Talde hauek eratu direla jakinarazi zaio Udalbatzako lehendakariari:

- Sarrera zenbakia: 670  
ASTEASUKO EAJ-PNV Udal Taldea  
Kideak: Aitziber Egaña Callejo  
Ordezkari eta bozeramailea: Aitziber Egaña Callejo
  
- Sarrera zenbakia: 672  
ASTEASU BATUZ Udal Taldea  
Kideak: Maria Pilar Legarra Cortajarena, Larraitz Alkorta Aizpurua, Pedro Maria Izagirre Sarasola, Aitor Usandizaga Izaguirre, Amaia Agirre Arrastoa, Xabier Roteta Erkizia, Iosu Arrikarte Otegui, Iosu Omeñaca Alcorta  
Ordezkari eta Bozeramailea: Maria Pilar Legarra Cortajarena



ASTEASUKO UDALA  
(GIPUZKOA)

Asteasuko Udaleko 2023 urteari dagokion Aurrekontua Gauzatzeko Arauaren 10.2 artikuluan jasotako kopuruak mantenduko dira. Dena den, Alkate andreak jakinarazi du aipatu kopuruak eguneratzeko proposamena egingo duela laster, izan ere, horiek ez dira berrikusi 2011 urtetik aurrera, eta hori egiteko aurretik Udal Aurrekontu Orokorretan beharrezko kopurua txertatu behar delako.

Proposamena bozketara jarri da, ondorengo emaitza eman delarik:

Aldeko botuak: 8 (Legarra, Alkorta, Izagirre, Usandizaga, Roteta, Arrikarte, Olano, Egaña).

Kontrako botuak: 0

Abstentzioak: 0

Beraz, Udalbatzak,

**HAU ERABAKI DU**

**BAKARRA.** Udal-talde politikoen diru-sariak, arduraldi eskusiboa edo partziala ez duten toki-erakundeko kideek izango dituzten bertaratzeak, eta toki-erakundeetako kideek beren karguak betetzean benetan egindako gastuen kalte-ordain hauek onestea:

- Udal-talde politiko bakoitzari dagokion diru-kopurua: alde batetik kopuru finkoa jasoko dute: 120,00 euro hileko; eta bestalde, kopuru aldakorra: 50,00 euro hautetsi bakoitzarengatik.
- Beren karguak dedikazio eskusibo edo partzialez betetzen ez dituzten udalbazkideentzat erabakitako ordainsariak, eta osoko bilkuretan, indemnizazio gisara erabakitako kopuruak hauek dira:
  - Batzorde Informatzaileetako lehendakariak: 215,00€/hilero.
  - Zinegotziak: 40,00€ Osoko Bilkuran parte hartzeagatik.
- Gehienezko kopuruak:
  - Informazio - Batzordeetako Lehendakariak, hilabeteko gehienez 215,00 euro gordin.
  - Gainontzeko Zinegotziek, hilabeteko gehienez 40,00 euro gordin.

**ZORTZIGARREN PUNTUA**

**2024 urteko Asteasuko tokian tokiko jai-eguna proposatzea**

Idazkariak hitza hartu du.

Azaroaren 28ko Toki Erakundeetako Antolamendu, Funtzionamendu eta Araubidearen Erregelamendua onartzen duen 2568/1986 Errege Dekretuaren 82.3 artikuluan jasotakoarekin bat, Udalbatzarrak proposamena gai-zerrendan txertatzea berretsi behar du.

2023/06/14ko EHAOn argitaratu da 71/2023 Dekretua, maiatzaren 30ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko langileen 2023rako jaiegunen egutegia onartzen duena; eta Dekretu horretan jasotakoaren arabera, Udalek uztailaren 14 aurretik aurkeztu beharko dituzte proposamenak dagokion lurralde-ordezkaritzan.

Gauzak horrela, Alkate andreak Gai-zerrendan jaso den proposamena luzatu dio Udalbatzarrari, aurretik Informazio Batzorden aztertu eta iriztu ez dena, Eusko Jaurlaritzak eskatutakoa betetzeko.

Proposamena bozketara jarri da, ondorengo emaitza eman delarik:

Aldeko botuak: 8 (Legarra, Alkorta, Izagirre, Usandizaga, Roteta, Arrikarte, Olano, Egaña).

Kontrako botuak: 0

Abstentzioak: 0

Gauzak horrela, Udalbatzarrak proposamena gai-zerrendan txertatzea berretsi du.

Honela dio:

2024 urteko Asteasuko tokian tokiko jai-eguna proposatzea

2023/06/14ko EHAOn argitaratu da 71/2023 Dekretua, maiatzaren 30ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko langileen 2023rako jaiegunen egutegia onartzen duena.

Aipatu Dekretuak xedatzen duenez, Euskal Autonomia Erkidegoan 2024an, urteko igande guztiak eta bertan zehazten diren 12 jaiegunez gain (Urtarrilaren 1, Urtarrilaren 6a, Martxoaren 28a, Martxoaren 29a, Apirilaren 6a, Apirilaren 1a, Maiatzaren 1a, Uztailaren 25a, Abuztuaren 15a, Urriaren 12a, Azaroaren 1a, Abenduaren 6a, eta Abenduaren 25a), lan ondorioetarako, jaiegun izaera izango dute –ordainduak eta berreskuraezinak izango dira–, bi mila eta hogeita laugarren urtean, tokiko jaiegun izaera izango duten beste bi egun, zeinak Lan eta Enplegu Saileko Lurralde Ordezkariek ezarriko dituzten, dagozkien udaletako Udalbatzen proposamenez. Egun horiek berdinak edo ezberdinak izan daitezke Lurralde Historiko bakoitzeko udalerrietan.

Gipuzkoako udalerrri guztietan aplikatuko den tokiko jai-eguna uztailaren 31n izango da, Loiolako San Ignazio egunean.

Udalek aurkeztu beharko dituzte proposamenak dagokion lurralde-ordezkaritzan.



ASTEASUKO UDALA  
(GIPUZKOA)

Alkate andreak proposatu du Asteasuko Udaleko jai-eguna 2024ko ekainaren 29a izan dadila, San Pedro eguna.

Gauzak horrela, eta espedientean jasota dauden dokumentuak ikusirik Udalbatzarrak honako

ERABAKIA HARTU DU

LEHENA. 2024 urteari dagokion Asteasuko Udaleko jai-eguna ekainaren 29a izan dadila, San Pedro eguna.

BIGARRENA. Erabaki honen berri ematea Eusko Jaurlaritzako Gipuzkoako Lan eta Gizarte Segurantzako Lurralde Ordezkaritzari.

Eta beste gairik ez dagoenez, Alkate andreak bilera amaitutzat ematen du arratsaldeko 20:25 orduak direnean, nik Idazkariak, bertan jasotakoaren akta hau luzatzen dudalarik.

Asteasun, 2023ko uztailaren 11n.

Alkate andrea

Bitarteko Idazkari Kontuhartzailea



## Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

**Titulua / Título:**

Udalbatzarreko akta 2023.07.11

**CSV/EKS:**

SINA232314b2-0171-4492-8d1b-589437f1369f